

221. zk.

Bigarren aroa

Urtarrilak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa

Toño Puerta,
Taupadak GKEko kidea



Kirolak

Dunboa-Eguzki Kirol
Kluba, koloreekiko
maitasuna



Itsasne Fernandez, Espainiako Gazte Orkestran

- 4 Made in Irun skateak
- 5 Inkesta. 2014rako erronkak
- 6 Mymugan, aholkulariak
- 7 Gastronomia
- 8 Kirolak. Dunboa Eguzki
- 11 Haurren leihoa. Eguzkitza LH
- 12 Gazteen Lanak. Txingudi BHI
- 14 Gazte informazioa

www.irunero.com
Sar
zaitez
web orrian



Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunbarro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko silitak
- Sehaskak

- Haur kotxeak
GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo. 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria
zaintzen dugu

Gure beste erdara



Xabier Kerexeta

Ez, ez naiz ingelesaz ari. Egia esan, horrela jarraituz gero laster antonomasiako erdara ingelesa izango dugu, duela mende bat espainola edo frantsesa ziren bezala. Diferentzia, orduan euskaldun hutsak bazirela, eta hemendik ehun urtera, elebakarrik izatera, espainol edo frantses hutsak izango dela, eta kontent, auskalozenbatedun euskaldunik ere geratzen bada.

Orain gure hizkuntza baino are okerrago dagoen bat dut hizpide. Izan ere, auzo hizkuntza ez ezik, gure erdara ere izan da, Iparraldean oraintsu arte. Euskarari buruz denetarik esan da, eta gutxitan onik, idealizazio sarritan kaltegarriez gain. Baina gauza bat ezin ukatu: mugak muga, euskalkien arteko aldeak hanpatuagatik ere, gurea euskara dela. Beharrik! Aragoi eta Valentzian katalan hitza bekatu larria denean, Asturias eta Leon mendebal-

dekoa galiziera dela ezin esan denean, hispanofonoek berek gaztelaniaz ala espainolez ari ote diren ez dakitenean, gurea beti izan da euskara hizkuntza.

Ezin gure beste erdara horretaz gauza bera esan: lengua d'oc ez baina lenguas d'oc esan behar omen da, eta okzitaniera hitza, hizkuntza multzoa ez baina bakarra dela iradokitzen duen heinean, laidogarri omen zaie askori... gehienetan frantsesez. Ederki dakigu hemen latinez ere: divide et impera. Horregatik, sarritan aurkitzen dugu auzo-hizkuntza gaixoa, nahiz eta frantsesez eskualde bati izena eman, Languedoc, izen bakarraz ez baina eskualde-dialektotan aditzera emana: proventzera, limosinera, auvernhera, lenguadociera bera, eta gurean arruntago, bistan da zergatik, gaskoiera, xuxenek ezagutzen ez duen hitza, bide batez esanda.

Eta zergatik da gure erdara? Gurea, irundarrona esan nahi dut. Beste batean kontatu beharko. Baina jakizue urtea berri pozgarri batekin amaitu dela Biarritzetik Bordele aldeko Blaia herriraino (ezaguna, toponimoa?), Italiako Alpeetatik Monakoraino hedatzen den lurralde zabaleko hiztun kopuru gero eta urriagoan: Interneten baino ez, egunean lau ordu soilik, baina sortu eta abian da ok hizkuntz(eta)n egiten duen lehen telebista. Adishatz.

Irun atzo Irun gaur

Olaketa atzo



IUA: 43390

Olaketa gaur



Prudencia Arbide kaleko beheko aldetik abiatzen da Olaketa kalea, Karmengo etxeak zeharkatzen ditu eta Gipuzkoa hiribideko ambulatorioan amaitzen da.

1971n Udalak hala deitzea erabaki zuen, izen bereko baserri eta inguruaren toponimoa kontserbatu ahal izateko. Antzina gurdibide bat zen.

Aurrerago, Irun zabaldu ahala, Olaketa baserriaren jabegoa zatikatu egin zen, etorkinentzako etxe berriak eraikitzeko.

1969an Irungo Udalak inguruetan ospitale-egoitza berri bat eraikitzeko asmoa zuen.

Aurreproiektu bat ere enkargatu zion talde espezializatu bati; ez zen, ordea, inoiz gauzatu.

Urtetan, futbol zelaiarena egiten zuen argazkiko zabaldian, auzotarrek ez ezik, parean zegoen Umeki eskolako hurrek ere jokatzen zuten.

80ko hamarkadan babes ofizialeko etxeak egitea erabaki zen bertan, baina 2004. urtera arte ez zen proiektua burutu.

Olaketa hitzaren etimologiari buruz, J. A. Loidik dio olak dauden tokia esan nahi duela.

Iturria: *Irungo kaleen izenak*. J. Monje

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez Le-kuona

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



“Munduari Amazoniako Bolivia erakutsi diogu”



Ez zen Boliviara egiten zuen lehenengo bidaia. 2004ko hartan, ordea, erabaki potoloa zeraman maletan: San Ignazio Moxosen biziko zen, Irun eta kazetari lana utzita. Harrez gero, Taupadak GKEaren bitartez, bertako indigenen aldeko hamaika egitasmori emana bizi da. Herri hartako musika taldeari esker, Amazoniako Bolivia ezaguna da mundu zabalean.

- Nolatan hartu zenuen erabakia?

Ez nuen egun batetik bestera hartu. 1996tik urtero joaten nintzen lankidetzak proiektuak garatzera, eta pixkanaka hango bizitzak harrapatu ninduen: ibaian ibili, harremana indigenekin... Ez zen ihesa izan; hango bizimoduak gehiago asebetetzen ninduen eta egin ahal nuen ekarpena handiagoa zela ikusi nuen, besterik ez. Aurretik hainbat herrialdeko korrituak nituen; baina beste kultura batzuk ezagutzeko nahikoa ez zela sentitzen nuen, konpromisoa behar nuen. Bolivian gotzain zegoen Manuel

Egiguren gipuzkoarra ezagutu nuenean garapenaren aldeko Euskadiko laguntzak hara bideratzea pentsatu nuen.

- Zein izan dira aurrera eramandako proiektuak?

Bidasoaldeko GKE den Taupadak, alde batetik, hezkuntzaren eta kulturaren alorretan dihardu, eta bestetik, egitasmo produktiboetan zein lurren jabetzaren ingurukoetan. Gaur egun indigenen 70 komunitate baino gehiagok lurren jabetza-agiria dute. Oso inportantea da etorkizuna bermatzeko. Bestalde, proiektuen artean *izarra* San Ignazio Moxoseko musika eskola da. Eskola xume

bat zena gaur egun goi mailako institutua da. Bertako Ensamblea (taldea) Bolivia kulturaren eta etnien arteko enbaxadore bilakatu da. Amazoniako Bolivia erakutsi diogu munduari.

- Zein dira zuen diru iturriak?

Euskadiko erakundeak eta baliabide propioak. Azken hauen artean aipagarrienak dira Taupadak egutegia, Sagardo Eguna, bazkideen kuotak eta bestelakoak, esaterako, ongintza afariak. Fernando de la Herak koordinatzen ditu jarduerok Bidasoaldean. Eskolak Irungo Udalaren laguntza dauka; baina, batik bat, bi urtean behin egiten dituen birak dira diru iturri.

- Zer moduz joan da aurtengoa?

Ikaragarria izan da. Irailetik abendura 90 egunez ibili gara Europako 8 herrialdeetan barrera eta guztira 70 kontzertu eskaini ditugu. Gehiago egiteko eskaerak genituen, baina ezin!

Boliviako eta Europako hedabideetan izan duen oihartzuna izugarria izan da. Moxoseko Ensamblea bere musikaren kalitateagatik ezaguna izatea lortu dugu, ez soilik Amazoniako indigenez osatua den taldea delako. Denak denetarik egiteko gauza dira: musikatresna jo, abestu, dantza egin eta antzeztu.

Jesuiten musika berreskuratu

XVIII. mendean jesuitak Espainiako inperiotik bota zituen monarkiak. San Ignazio Moxoseko misioa bazuten. Jesuiten espiritualtasuna eta kultura hoberen kontserbatzen den tokia da gaur egun. Misioetan utzitako ondare musikala ahozko tradizioari esker iritsi da gaurdaino. Pieza horiek zahar batzuek baizik ez dakizkitenez, galbidean daude. Horregatik, bi urtean behin Moxoseko Ensambleak disko bat grabatzen du, berreskuratutako konposizio sorta biltzen duena. Ikerketa-lanaren emaitza emanaldietan txertatzen dute. Jendeak bereziki gustuko ditu mestizoak direlako.



CENTRO

KINEESIS

www.kineesis.net

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Made in Irun



skateak

Igor, Iban eta Ander Iraola anaiek skate taulak ekoizteari ekin zioten duela 10 urte pasatxo. Gaur egun HLC Distributionek 50 herrialdetan saltzen dituz bere produktuak.

Irun Ekintzan lehiaketan, Kontsolidatutako Enpresa Berritzailearen saria irabazi zuen.



Betidanik izan dute zurarekin eta ekintzaletasunarekin hartu-eman. Bi elementu horiek ongi uztartzen zituen familiak Irungo Iraola Ateak enpresan. Belaunaldi berriak, ordea, negozioa beste erpin batetik begiratu eta gurpilak jarri zizkion. European beste inork egiten ez zuena abian jarri zuten: skateak. Lanari lotu eta handik gutxira iritsi zitzaient bultzada erabakigarria: mundu mailako skate taulen fabrikazio sarietan bigarren sailkatu ziren. Halaxe, JART marka munduaren konkistaren bidetik abiatu zen.

Gaur HLCren Katea auzoko fabrika 30 langilek dihardute skatearen alorreko gaiak ekoizten. Baina bere jardueraren ondorio ekonomikoak Irundik harago zabaldu dira, produktutak 50 herrialdetan saltzen direnez sare komertziala ere beharrezkoa delako.

Longboard, berrikuntza

Irunen taulak ekoizten dituzte eta, gurpilak estanpatu ondoren, muntaketa egiten da. Etengabeko berrikuntzarako sena eskatzen duen skatearen mundu honetan, orain hilabete batzuk HLCK Long Island marka merkaturatu zuen, *longboard* motako taulatan espezializatuta. Moda-modako taula hauek ohikoak baino luzeagoak dira, goi-mailako kalitatekoak, ekoizteko materialen artean karbono zuntza ere daramatenak.

Berritu, berritu eta berritu

Iraola anaiek puntako emaitzak lortu dituzte. Negozio guztietan legez, ordea, zailena mantentzea izaten da. Alor guztietan etengabe berritzea da sekreturik behinena. Kaskoak, hasiberrientzako taulak, diseinu berezia... hamaika bide jorratzen dituzte egunero, etenik gabe eta ilusio nahiz grina dosi dezente handiz.

KALEKO INKESTA

2104. urterako zein erronka dituzu?

**Koldo Susperregi**

Lanari dagokionean, 2014a iaz baino hobea izatea espero dut. Taxilaria naiz eta bezero gehiago izan nahi nituzke. Urte hasieran ez diot nire buruari erronka berezirik jartzen. Askok horixe egiteko ohitura dute; esaterako, kirola egiteko erronka, baina aurrerago bertan behera uzten dute.

**Yolanda Quiroga**

Argaltzeko eta kirola egiteko erronkak jarri nizkion nire buruari urte hasieran. Egunero ordubetez oinez ibiltzera joaten naiz, bakarrik; lagunekin banoa, ziur berriketan arituko naizela. Ene ustez, jendeak bere buruari jartzen dizkion mota honetako helburuak bolada batez soilik betetzen ditu. Inauterietako, bertan behera uzten dira.

Oro har 2014an ekonomiak hobera egin dezala nahi dut eta, ondorioz, komertzioan salmentek gora egin dezatela.

**Jessica Uribesalgo**

2014a oso urte ona izatea espero dut. Lana daukat, maitasuna, lagunak, osasuna... ez dut kexarik! Helburu zehatzen artean bat nabarmenduko nuke: sasoiaren egoteko kirola egin nahi nuke. Lehen egiten nuen, baina utzion.

**Mikel Amenabar**

Datorren hilean ezkonduko naiz; beraz, 2014a ezin hobea hasiko da! Alor pertsonalean aurreneko 2013a bezalakoa bada, konforme egongo nintzateke. Lana ez zait falta, ezta osasuna ere.

Kirolaria naiz, itsas piraguismoa egiten dut. Nire markak hobetu nahi nituzke.

**Eneko Huarte**

2013a baino hobea izatea nahi nuke. Esku artean dauzkadan lan proiektuek ea hobera egin eta finkatzen diren! Oso topikoa bada ere, nire osasun ona eta ingurukoena 2104an mantentzea dadila da nire nahia. Desio zehatz bat ere badut: bidaia bat egiteko denbora eduki nahi nuke.

**Ainhoa Tolosa**

2013a ikaragarri txarri izan da nire bizitzako alor guztietan: pertsonalean, lanean...

Hasi berria den urte honi denontzako lan eta osasun gehiago ekar dezala eskatzen diot.

Nire buruari erronka zehatza jarri diot: argaltzeko dieta egitea; baina hastera asko kostatzen da, eta are gehiago mantentzea!

**La agrícola**

Alzukur kalea, 1. IRUN. 943 244 118

Zatoz gosaltzera!

Nahi dituzun kafe eta galleta guztiak

1,5 €

8:30etik aurrera



Mylmugan: mugaz gaindiko aholkularitza enpresentzat eta pertsonentzat

Iparraldean bizitzea eta hegoaldean lan egitea oso ohikoa da gaur egun.

Enpresek ere merkatu berrien bila mugaren beste aldera begiratzen dute.

Bidasoa zeharkatzeko egin beharreko izapideak, ordea, erabat ezezagunak dira gehienentzat.

Behar horiei guztiei erantzuteko Maite Varelak eta Leire Gilek MYLMUGAN Aholkularitza sortu zuten.

MYLMUGAN mugaz gaindiko aholkularitza juridikoa da, bi estatu ezberdinetan lan egin eta bizitzeagatik edota jarduera ekonomikoa burutzeagatik burokrasiak eskatzen dituen gestioak kudeatzen dituen.

Partikularrei dago kienez, eguneroko bizitzako kontu guztiak kudeatzen dituzte mugaren bi ertzetan: etxe baten eraikuntza, aseguruarekin arazoak bide ratzea, errentaren

gaineko aitortpena aurkeztea, ogasunaren inguruko izapideak... Halaber, gizarte segurantzarekiko harremanez arduratzen dira; esaterako, prestazio medikoak, gaitasun bajak, Carte Vitale delakoaren eskuratzea Frantzian lege-bizilekua dutenei zein bertan lan egin baina bizi ez direnei, langabeziako sorospenak...

Sarri gertatu ohi da ibilgailuekin zerikusia duten gestioak konpondu behar direla frantziar administrazioarekin. Honetan ere aholkularitza integrala eskaintzen

dute MYLMUGANeko profesionalak; adibidez, matrikulazioak eta nazioarteko zirkulazio baimenaren homologazioa.

Enpresen kasuan, merkatuei zein bezeroei buruzko ikerketak egiten dituzte, sozietateen eraketak, kudeaketak, kontularitza nahiz balioespenak, eta enpresak aurkeztu edo eguneratu beharreko izapide burokratiko guztiak. MYLMUGANen profesionalak ez ezik, freelance moduan jarduten duten beste bi lagunek ere lan egiten dute.

Bezeroarekin harreman zuzena eta pertsonala dute, eraginkortasuna izaki haien lan filosofia. Bakoitzari zerbitzu osoa eskaintzen diote, interesen alde jokatzuz eta eginbeharrak betez.

MYLMUGANek Irungo Iparralde hiribidean du bulegoa, Ficoba eraikinean.

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 19:00etara, eta ostiraletan 9:00etatik 15:00etara.

943 53 77 20

**Gizarte
segurantzarekiko
harremanez ere
arduratzen dira**



Maite Varela
eta Leire Gil.

Ibilbide luzeko profesionalak

Leire Gilek eta Maite Varelak sortu zuten enpresa hau. Aholkularitzan formazio handia dute eta eskarmentu handiko profesionalak dira, bai alor pertsonalean bai enpresari dagokionean ere.

Partikularrei bizitoki-aldaketaren zerikusia zuten izapideekin laguntzeko jaio zen aholkularitza, zeren eta, harrigarria bada ere, espezializazio horretarako ez baitzegoen gure inguruan, nahiz eta mugan bertan eduki. Arrazoi bat da legeria oso zabala dela eta izapideak, ondorioz, konplexuak eta luzeak.

Mugaz gaindiko hiritarra izateak gestio asko eskatzen du: etxea erosi, seme-alabak eduki, jarauspeneak, errenta aitortpenak, banantzea... Norberak egiteak hanka-sartzeak eta denbora galtzeak ekar ditzake. MYLMUGANek horiek guztiak taxuz burutzeko laguntza eskaintzen du.

Mugaz gaindiko aholkularitza

MyL mugan
aholkulariak

Ficoba
Iparralde
hiribidea, 43.
IRUN
t 943 537 720
f 943 116 014
m 649 014 096
www.mylmugan.com



T. 678 617 907
mgrotulos@gmail.com
Pedro Manuel
Aristegui kalea, 12
IRUN

Boilur beltza eta angulekin egin dut amets

Gaur gauean amets berezi bat izan dut. Lagun artean nengoen elkarre gastronomikoan kazola artean lan eta lan. Sukaldariak aldarria egin eta denok eseri gara mahaiaren bueltan. Bi kazola eder jarri ditu mahaiaren erdialdean. Tapak kendu eta afaltzeko geneuzkan kutixiak agerian utzi ditu: boilur beltza eta angulak. Ametsa izan da.

Badirudi azken urteotan ametsetan soilik dugula Boilur Beltza edo Angulak dastatzeko aukera, batez ere merkaturan duten salneurriarengatik. Baina hala eta guztiz ere, oraingoan bi luxuzko produktu hauei buruz hitz egin nahi dizuet, hitzen bitartez baldin bada ere dastatzeko aukera izan dezazuen.

Boilur Beltza

Boilur Beltza (*Tuber melanosporum*) lur-azpian aurkitzen den onddo bat da. Euskal Herrian, Arabako mendialdean eta Nafarroako Orba ibar inguruan hazten da. Boilur beltza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da txakur edota basurde baten laguntza izatea, bi animalia hauek baitira euren usaimenari esker lur-azpian ondo hau bilatu eta aurkitzen dutenak.

Gastronomiaren munduan oso preziatua da Boilur Beltza eta hainbat modutan presta daitekeen arren, guk bi errezeta simple aurkeztuko dizkizuegu, egunen batean etxean onddo hau izateko zortea baduzue nola prestatu jakiteko.

BOILUR BELTZ NAHASKIA: zartaginean olio pixka bat jarri eta berotzen denean, boilur beltza bota bertara. Denbora pixka batez sukaldatu onddoa, eta behin prest dagoela, arrautza bota eta nahaskia prest duzuenean plateran jarri.

BOILUR BELTZ ENTSALADA: plater bat hartu eta azpian bizpahiru patata egosi xerra jartzen ditugu, gainean uraza kokatu eta granada haziak bota. Behin hiru osagaiak prest ditugula, boilur beltz xerratxoak bota eta, amaitzeko, oliozipina.

Angula

Angula aingiraren arrainkumea dugu, gramo bateko pisua, 8 zentimetro eta bizpahiru urte dituena. Euskal sukaldaritzan aspalditik protagonismoa izan duen produktua dugu, baina inguruko herrialdeetara zabaldu zenean



hauek jateko ohitura, prezioak izugarritzko gorakada jaso eta horrek luxuzko produktu bihurtu zuen. Angulak dastatzeko errezeta ohikoena, baratxuria eta piperminarekin batera prestatutakoa da.

Ea zortea duzuen eta aukera izaten duzuen noizbait luxuzko produktu hauen bitartez, gastronomiarekin, sukaldaritzarekin eta bizitzarekin gozatzeko. On egin!

Oraitz Garcia
gastrofesta.com

GASTROFESTA
— — — — —



Irungo Atsegiña
Iñaki Barros

Bakailao puska txingarretan barazkizko erreki sortarekin



4 lagunentzako osagaiak

150na gramoko 4 bakailao puska, tomate 1, alberjina 1, kalabazin 1, piper morro 1, 2 piper berde, tipulin 1, baratxuri buru 1, oliba-olioa, Maldon gatz, tipulin belarra.

Barazkietarako

Parrillan erreko ditugu barazki guztiak banaka, baikoitzaren erre puntua errespetatzeko, eta geroko gordeko ditugu.

Bakailaorako

Bakailaoo azalaren aldetik markatuko dugu oso parrilla beroan, azala kurruskatsu geratu arte.

Kazola batean 4 baratxuri-atal gorrituko ditugu oliba-olioan, eta baratxuriak geroko gordeko. Olio bera erabiliko dugu bakailaoo oso tenperatura baxuan konfitatzeko, betiere azala busti gabe, kurruskatsu jarrai dezan.

Bukaera eta aurkezpena

Barazkiak plateran txukun paratu. Gatz ezpalez eta olio tantaz zipriztinduko ditugu eta haien gainean bakailaoo jarriko, azala gora dagoela. Baratxuri konfitatuekin eta txikitutako tipulin belar pixka batekin apainduko dugu.

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Dunboa-Eguzki Kirol Kluba, koloreekiko maitasuna



1976an eratu zen Dunboa-Eguzki Kirol Kluba. Izen bereko ikastetxearen babespean eta desagertu berri zen Viteri ikastetxearen futbol tradizioa jasota eman zituen lehendabiziko urratsak. Urtero Lopez Ufarte Nazioarteko Lehiaketa antolatzen duen klubetik jokalaria ugari igaro dira azken urteotan. Gaur egun, 350 dira bere lerroetan dituen jokalaria.

Arratsaldeko 20:30an Larreaundiko futbol zelaian haurrak dira nagusi. Ume puntak dira, baina pase bakoitzean kalitate ikaragarria erakusten dute. Bertan entrenatzen, 10 urteko Ekaitz Liceaga, Ander Serrano eta Julen Telletxea eskarmentu handiko lagunak aurkitzen ditugu. Astean ordu eta erdiz jarduten dute Porfirio Velado, Michel Rodriguez eta Pablo Dávila entrenatzaileen esanetara. Ekaitz, adibidez, oso pozik dago entrenatzaileengandik ikasitakoarekin. “Baloia gehiago ukitzen eta ondo gidatzen erakutsi didate”. Lehiakorrak eta zorrotzak dira hiru alebin hauek, eta ez dute batere gaizki egiten. “Orokorrean nahiko ondo goaz, baina Antiguokoaren eta Baskoniaren kontra jokatuako partiduak galdu ditugu; beraz, hobetu beharra dago”, dio Anderrek.

Hain txikiak izanik ere, gauzak nahiko argi dituzte, eta etorkizunari buruz galdetzean, koloreekiko maitasuna argi geratzen da: “Dunboan jarraitu nahiko genuke”.

Umeak hain gustora egotearen errudun Ricardo Gómez (taldeko presidentea), Javier González (entrenatzailea eta

klubeko zuzendaria), Fernando Pascual (Futbol Eskolako arduraduna eta entrenatzailea) eta Juanjo Pascual (entrenatzailea) dira. Ricardo Gómez presidentek 15 urte darama Klubaren gidaritzan. Egiten duen guztia “umeengatik, koloreengatik eta klubarekiko maitasunarengatik” egiten du. Taldeak 8 kategoria ditu.

Eskola

Eskola 2007an sortu zen eta 150 ume ditu bere lerroetan. Bertan, futbolaren oinarri taktiko, tekniko eta fisikoak erakutsi eta hainbat balio helarazten zaizkie umeei. “Pertsonetikiko errespetua eta solidaritatea erakusten dizkiegu. Hala ere, umek balio hauek jasotzea eta praktikan jartzea ez da batere erraza”, Fernando Pascual eskolako arduradunaren esanetan. Javi Gonzálezentzat “pozgarria da ikustea entrenatu dituzun kirolari txikiak goiko kategorietan jokatzen, baita zuk irakatsi diezun praktikan jartzen ere”.

Helburuak

Aurtengo helburuei dagokienez, argi dituzte presidentek eta hiru entrenatzaileek: “1. erregional mailan dagoen taldera igotzea lortu nahi dugu. Bestalde, gazte, kadete eta haur

kategorietan ohorezko maila lortzea da gure helburu nagusia. Honela, Gipuzkoako talde garrantzitsuenekin lehiari aurreratu gaitzke. Eta eskolari dagokionez, urtetik urtera gure formazio lana hobetzea”.

Krisi ekonomikoak kirol klubaren egoera zailagotu egin du, dirulaguntzak drastikoki jaitsi baitira. Jaitsiera hau aurtengo Lopez Ufarte Nazioarteko Txapelketaren XXXII. edizioan nabaritu egingo da. Hala ere, taldeak bere onena emango du txapelketa ondo joateko. Ricardo Gómezek aurreratu duenez “Athletic Bilbao, Gipuzkoako Selekzioa eta Villarreal dira gonbidatutako taldeetako batzuk. Gainera, Ozeaniako selekzio bat ere etortzekotan da”.

Etorkizunari begira, Dunboa-Eguzki Klubaren xedea da “Klubaren inguruko giza-ekintza sustatzea eta emaitzak hobetzea”. Javier Gonzálezek ustez, “pertenentzia-sentimendua eta koloreekiko maitasuna baitira gure kluba mantentzen duten oinarriak”.

Informazio gehiago:

www.dunboaeaguzki.com

www.facebook.com/dunboaeaguzki



1.- Alebin mailako taldea. 2.- Haur mailakoak. 3.- Erregionalen lehen mailakoak. 4.- Dunboa-Eguzki Kirol Kluba, Lopez Ufarte Nazioarteko Lehiaketaren XXXI. edizioan. 5.- Alebin kategoriakoak.



Ezkerrean, "Guraso eta seme-alabak" txapelketako parte-hartzaileak. Eskuinean, Ane Gamar.

Sonia Etxazarreta Mahai Tenis Teknikazio Zentroa, Leka Enea Klubaren altxor berria

2013ko urrian ireki zituen ateak mahai tenisaren tenplu berri honek. Gaixotasun luze baten ondorioz 2011n hil zen Sonia Etxazarreta jokalaria famatuaren izena darama eta Leka Enea klubeko jokalaria guztiek bertan entrenatzen dute. Espazioa, erosotasuna eta kalitatea dira zentro berriak taldeari eskaintzen dizkion ezaugarri nagusiak.

Olaketa kalean barrena joanez gero, Sonia Etxazarreta Mahai Tenis Teknikazio Zentroarekin topo egiten dugu. Leka Enea taldeko jokalariek 2013ko urrian eman zuten lehendabiziko pala-kolpeak gune berriko mahaietan. Sonia Etxazarreta Leka Enea taldearen hastapenetan egon zen, eta klubaren izena estatuko eta nazioarteko txapelketa garrantzitsuetan oso goian utzi zuen beti. Espainiako Txapeldun izan zen, beterano kategorian. Bertan, banakako txapelketa, bikotekoa eta mistoa irabazi zituen. Nahiz eta emakume indartsua izan, gaixotasun luze batek partida irabazi zion. Leka Enean Soniaren taldekide izandako Maria Rubiok ondo gogoratu zuen taldean bizitako momentu latzak. Hori dela eta, eraikitzeke zegoen zentro

berriari jokalaria garrantzitsu haren izena jartzea erabaki zuten. "Irun hiriaren izena ahoan zeraman beti Soniak. Hori dela eta, Irungo Udalarari Soniaren izena jartzea proposatu genion. Horregatik oso berezia da bera gogoratzen eta omentzen duen zentroan egunero aritzea".

Eskola

Maria Rubio, Gorka Fernandez taldekidearekin batera, mahai tenis eskolako arduraduna da. Aurten 60 gazte dituzte. "Oso pozik gaude dugun ume kopuruarekin; izan ere, zentro berriak eskaintzen duen espazio zabalak bi talde egitea eta kide gehiago onartzea ahalbidetu digu. Gainera, dena zentralizatuta dago orain eta askoz errazagoa da klubaren gestioa eramatea".

Klubeko gaztetxoek ere nabaritu dute bi solairuko eraikin berri honetan aritzeak dituen onurak. Hamairu urteko Alvar Tiferentzat, "erosoagoa da, ez baitzara mahaiak mugitzen ibili behar; gainera, leku gehiago dago eta instalazioak berriak dira". Hamalau urteko Ane Gamarren ustez, espazioaz gain, aldagelak dira berritasun garrantzitsuenak. "Artalekuko aldagelak oso zaharkituta zeuden eta hemen nesken zako aldagela zabala dugu".

Denboraldiko erronkak

2013-2014 denboraldi honetan, klubaren erronka nagusia da maila mantentzea eta eskola hazten jarraitzea. "Superdibisioan aritzen den gizonezko taldeak mailari eustea eta Europara bueltatzea da gure helburua. Neskei dagokienez, kategoria mantentzea, baita lehen mailako taldea ohorezko kategoriara igotzea ere. Alebin eta Haur mailan, berriz, Gipuzkoako txapelduna gure lerroetatik ateratzea nahi genuke, eta gazteek konfiantza hartzen jarraitzea".

Etorkizunera begira, neskak mahai tenisaren mundura erakarri nahi ditu taldeak. "Oso giro ona dago, txapelketetan jende interesgarri asko ezagutzen duzu eta lagun asko egiten dituzu", dio baikorki Mariak. Ane Gamarrentzat ere, "neskak animatu



Goian, Bidasoaldeko I. Eskolarteko Txapelketako sarituak, eta behean, parte-hartzaile bat.

behar dira, oso kirol interesgarria baita. Gainera, neska gehiago izanda txapelketa garrantzitsuagoetara joango ginateke". Mahai tenisaren munduan murgildu nahi dutenentzat, hona informazioa: www.lekaeneatm.com

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Errealitate munduaren, Kirolak, Denda-nuene metretan, Festapaisaia, La Barakaldo, Ocarrio, Pasillo de oro, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kiriñan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habita, Ponte en forma, Errealitate munduaren, Kirolak, Denda-nuene metretan



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 txingudionline.com

Festapaisaia, La Barakaldo, Ocarrio, Pasillo de oro, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kiriñan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habita, Ponte en forma, Errealitate munduaren, Kirolak, Denda-nuene metretan

berriak, erreportaiak, historia, kirolak, urbiltasuna, eztabaidak

Zaboga, Kiriñan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habita, Ponte en forma, Errealitate munduaren, Kirolak, Denda-nuene metretan, Festapaisaia, La Barakaldo, Ocarrio, Pasillo de oro, Historias del Bidasoa

Erdi Aroko Baskonia ezezagunaren inguruko erakusketa, Oiasso Museoan

“Baskonia erdialdeko lurraldea. Mugako hileta errituak” erakusketak orduko arbasoen nortasuna ezagutaraztea du xede. Garai hartan ez ziren modu arkaikoan eta korrante historikoetatik urrun bizi. Aitzitik, gai izan ziren, frankoen eta bisigodoen erresumen arteko muga-egoera baliatuz, berezko nortasunari eta kulturari eusteko.

Oiasso Museoan objektuak aurkezten dira, baita berregintzak, planoak, testuak eta ikus-entzunezkoak ere.

Martxoaren 9ra arte bisitatu ahal izango da.

Belen Sierra Irungo Udalaren Kultura ordezkariak aurkezpenean azpimarratu zuenez: “Oiassok gure iraganari begirada berri bat eskaintzen dio. Historian zeharreko bidaiak, oraingoan, aukera emango digu Erdi Aroan lurralde hauetan nola bizi ziren jakiteko, eta nola muga duela mende batzuk zegoeneko elementu erabakigarria zen, gure arbasoek aprobeztatzen zutena garaiko korrante historikoen ildoan egoteko”.

Erakusketako edukiak

Zibilizazio kretarra erabat desagertua zen gizateriaren oroimenean. 1900ean aurkitu zuen Arthur Evans ikertzaile ingelesak. Kultura minoikoa izena eman zion, eta inspirazio gai bihurtu zuen garaiko arteko.

Antzeko zerbait gertatu zen gure Erdi Aroko iraganaren bertsioarekin; izan ere, erabat ezezaguna zen, harik eta 1987an halaberharrez Aldaietako hilerrian hatuak agertu ziren arte, Araban, Ulibarri-Ganboako urtegiko urek eraginda. Aurkikuntza haren ondoren eta, gero, hainbat kanpainatan nekropolia induskatu ondoren, hobeto ulertu ahal izan ziren aurretik egin ziren beste aurkikuntza batzuk; esaterako, Iruñeko frankoena esaten zaion hilerria. Baina Aldaietak balio izan du, batez ere, ikerketa berrien eta arkeologia-aurkikuntzen abiapuntua izateko. 25 urte geroago, arkeologiak eraikitako in-

formazio berriak aukera ematen du VI. eta VIII. mendeen arteko euskal lurralde-atarako marko historiko garrantzitsu bat mahaigaineratzeko.

Gerrarako armak ikusgai

“Baskonia, erdialdeko lurraldea. Mugako hileta errituak” erakusketak hatu harrigarri horien arteko aukera bat aurkezten du. Gehienbat gerrarako armak dira (lantzak, jaurtitzeko aizkorak, sastakaiak eta ezpatak), hildakoen ondoan jarriak. Erabili zituztenen gerlari-izaera erakusten dute. Baina badira mota bereziko gerrikoen belarriak ere, arma-motei gehituta, Pirinioen iparrera zegoen kultura frankoaren eragin garrantzitsuak erakusten dutenak. Beste objektu batzuk ere gehitzen dira; esaterako, beirazko edalontziak, zilarrezko eraztunak, brontzezko zintzilakariak eta garaiko beste bitxi batzuk, eta zeramika-ontzi sinpleak eta hilarri ikusgarriak.

Bizkaiko Arkeologia Museoak ekoitzi du erakusketa, eta Agustin Azkarate eta Iñaki García Camino doktoreak dira komisarioak. 79 pieza daude, BIBAT Arabako Arkeologia Museokoak; 33, Nafarroako Museokoak; 2, Bizkaiko Arkeologia Museokoak, eta pieza 1, Elorrioko Udalarena. Horiek guztiak Oiasso Erromatar Museoan jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan du erakusketak.




Erakusketa, batez ere, VI. eta VII. mendeetako ehorzketa ohituretan oinarritzen da.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Eguzkitza LHI



IPUINA

KLARITAPIRATA BAT DA

Batean behin Klarita iraroko ur tanta bat eta arko gurutzaren zitak ma zen abenturak egitea. Baina bat batean buruatu zitzaion joste a bere itxas ontziarekin itxasora. Hori zen itxasom ibiltzen baina topatu zen itxas meska batekin eta itxas meskak galdetu zion:

- Zer gertatu zizu?
- Nire itxas-ontzi ur peratzen ari delan.
- Laguntzea nahi al duzu laguntzek?
- Ba bai, eskerik arko laguntzea gaitik.

IZENA: June Runguete Data: 2013/05/19



zure enpresari internetetik zabaltzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



Txingudi Ikastola BHI

Maitane

Nire izena Jokin da. Bizkaikoa naiz eta gehien maite nuen neska galdu nuen duela bi aste. Sufrimendu latza da eta ezin dut gehiago. Ez dakitt zein naizen ere. Nortasuna neskarekin batera galdu dut.

Gaua zen. Edanda nengoen eta ez nekien norantz nindoan. Burua nahastuta nuen, baina azken batean egin beharra nuen. Ez zen niretzat onena izango baina ez zitzaidan besterik gelditzen. Bera, Igorreko neska alai bat zen, Maitane. Beti egoten zen irribarrez, zoriontsu. Hori zen beregandik gehien gustatzen zitzaidana. Ile errubioa, begi urdinak... mutil guztiek nahiko luketen dena zen. Baina orain ez du axola... Galdu nuen eta ez dut berriz berreskuratuko...

Pentsamendu asko, zalantza pila, hitz egin edo aurpegira bota gabeko gauzak... Denak buruan nituen, baina azkenean alkohola alde batera utzita erreakzionatzea lortu nuenean, bide horretan nindoan, nire kamioiarekin batera. Bide hori asko ezagutzen nuen: Barazar portua pasa ondoren zegoen. Orduan bide ertzean herri baten izena irakurri nuen: Igorre. Berrito frenagailua ondoraino sakatu nuen. Igorre Barazar portua pasa eta beste aldean zeogen eta oraindik ez dut Barazarko portua pasatu. Mila aldiz egin dut bide hau kamioiarekin eta seguru nago. Lehenik

Barazar eta gero Igorre, eta ez aldrebes, baina hantxe zegoen herria nire aurrean. Orduan hotzikara sarstu zitzaidan gorputzean. Zer gertatzen da? Askotan egon naiz hemen, ezinezkoa da! Azkenean herrian sartzea erabaki nuen. Hara nindoan, beraz ez nuen ezer galtzekorik. Etxe berdinak, kale berdinak, Maitanek lan egiten zuen taberna ondoko parke bera, eta nola ez, *Goiko etxe* taberna.

Dena zegoen, bai, baina zerbait falta zen, jendea. Ez zebilen inor kalean, ez zegoen argirik etxe bakar batean ere. Orduan tabernara sartzeko erabakia hartu nuen, Jangelan, inor ez. Barran ere ez. Sukaldea hutsa. Beldurtzen hasi nintzen. Baina halako batean, nire atzean behatz batek ukitu ninduen. Bera zen. Nire Maitane. Duela bi aste hil zen neska hura. Bere irribarrea, bere begiratzeko modua, bere ezpain finak, bere ile errubio luze eta polita...

Orduan eskuak aurpegian jarrita negarrez hasi nintzenean, nire ama agertu eta ea zer gertatu zitzaidan galdetu zidan. Bera agertzean ez zegoen Maitane, ez nintzen *Goiko Etxe* tabernan, ez Igorren ere. Nire gelan baizik, nire ohean, betiko moduan... Gaizki.

Haizea Telletxea Artola
3. maila



DOMAINU BAT ZURE SEME-ALABENTZAT, ETORKIZUNARI BEGIRAKO INBERTSIO BAT MARKETIN PERTSONALEAN



Seme-alabak ditugun guztiok izaten dugu amets haien zoriona, haien hezibidea, eta etorkizunean pertsonak onak, herritar zintzoak eta alaitan lanbide hoberekoak izatea.

Beste batzuek ere nahi izaten dute jabego higiezin bat ere edukitzea, adibidez gura-

soengandik heredatutako etxe bat, haien ongizatea bermatzeko.

Gaur egun, berriz, bizi garen gizarte gero eta digitalizatuagoan, beste zerbait ere eman diezaiekegu opari seme-alabei, bilobei, bestelako senide edo lagunei: on-line independente izatea, nortasun birtuala, Interneten bereiz eta bakan agertzea.

Warren Adelman GoDaddy.com Interneteko erregistro-firmaren presidentearen aburuz, "sarean domeinu bat izatea XXI.eko ondare higiezin moduko bat da". Ideia biak batuta, ondorioa argi dago: zergatik ez eman lehenengo pausua eta haien izen pertsonala domeinu gisa erreserbatu?

Enpresa edo proiektu pertsonal bati ekin

dion nornahik badaki domeinuaren aukerak mugatu egiten duela izen komertzialaren hautaketa. Askotan baztertzen dira oso ideia onak, hain zuzen puntucom bat eskuragarri ez dutelako.

Marka komertziala alda daitekeen izena baldin bada, ez da larria. Geure izen pertsonalaz ari bagara, hor dago kokka.

Marka pertsonala gero eta indar handiago duen kontzeptua da, eta gero eta gehiago lotzen dugu Interneten dugun jardunbidearekin; horixe da gaur egun "marka pertsonala 2.0" izenez ezagutzen dena. Profesional independente batentzat, izen+deitura.com (edo bestelako domeinua) edukitzea ezinbesteko baliabidea da on-line agertzeko eta beraz sustapen per-

tsional/profesionalerako.

Sarea handitu ahala, eta kontuan hartuta zenbat domeinu-ehiztari dagoen, gero eta zailxeago da merezi duten izenak eskuratzeta. Gainera, zure izena arrunta bada, lehia are gogorragoa da.

20 urte barru, Interneten egiturak eta funtzionamenduak berdintsu jarraitzen badute (auskalo!), ohiko gauza izango da domeinuen eskualdaketa negoziatzea. Baina denboraz aurre egiten badiogu, aurreztuko diegu halako lana gure seme-alabei, haien izenak orain geure eginda.

Pablo Moratinos
Marketing online-aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Itsasne Fernandez irundarra, Espainiako Gazte Orkestrako kide berria



Itsasne Fernandez 23 urteko klarinete-jotzailea Euskadiko Gazte Orkestraren eta Kataluniakoaren kide da. Berriki azken jauzia eman du, Espainiakoan (JONDE) onartua izan baita. Ilusioz gainezka ekin dio lanari.

“Oso urte berezia izan da. Kostata, baina lortu dut. Ordu asko lan egin behar izan dut”. Itsasne pozarren zegoen Espainiako Gazte Orkestra Nazionalaren kide izango zela jakinarazi ziotenean, irundar bakarra. Guztira 60 musikari aurkeztu ziren, baina hiruk baino ez zuten plaza eskuratu.

Dagoeneko ezagutu ditu bere kideak, ehun guztira, eta Zaragozan egin diren lehendabiziko entseguetan parte hartu du. Handik Madrilerera joan dira, aste honetan bertako Auditorio Nazionalean estraineko kontzertua emateko. Itsasne oso gustura sentitu da lehenengo saioetan. “Lan giroa oso ona da. Jendea zinez jatorra da eta musika egiteko sekulako ilusioa dauka.”

7 urtetik klarinetea bidelagun

Txiki-txikitatik saxoa etxean entzuna zuen, aitak eta anaiak jotzen zutelako. Itsasne, bost urte zituela, solfeoa ikasten hasi zen; handik bi urtera, musika-tresna aukeratzeko tenorea iritsita, klarineteak erakarrira sentitu zen. Orduz geroztik bidelagun izan du, eta harremanak

luze irautea nahi luke gazte irundarrak.

Hamazazpi urte zituenean, erdi-mailako ikasketak burutu ostean, Bartzelonarako bidea hartu zuen, bertako Goi-Mailako Musika Eskolan ikasten jarraitzeko xedez.

Euskadiko Gazte Orkestran sartu zen aurrena, Kataluniakoan (JONC) ondoren.

Lan gogorra aurretik

Sari polita izan da Itsasnerentzat Espainiako Gazte Orkestrako kide izatea; baina, ezbairik gabe, lana erruz ekarriko dio. “Kide guztiok ikasketak bukatu ez ditugunez, bada, tarteka denak elkartu eta entsegu trinkoak egiten ditugu: bi astekoak izan ohi dira, eta egunero saioak, zortzi ordukoak”.

Erabat argi dauka etorkizunari begira orkestra batean jardun nahi lukeela profesionalki. “Plazaren bat betetzeko deialdia zabaltzen denean, bada, aurkeztuko naiz, lortu arte”. Bitartean Josep Fuster irakaslearekin jarraituko du, zeinaren irakasteko estilo zorrotza eta aldi berean apala eta goxoa guztiz estimatzen baitu.

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués

+ DJ *Bizarr*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara

Zar behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRITBIA.COM



Ikastaroak

- ARGAZKILARITZA DIGITALA. OINARRIZKO IKASTAROA. Noiz: Martxo - ekaina. Ostegunetan 19:00-21:00 Edukia: Zure kamara eza-



gutu eta errendimendua atera, argazkiak eskuzko ezarpenez ateratzen ikasi, konposizioa, ordenagailu bidezko edizioa, irteerak... Lekua: Antzarango Auzo Elkartean (Hendaia k., 13.) Prezioa: 200 € www.fotoeskola.wordpress.com

- SOROSPEN ETA LEHEN LAGUNTZEN IKASTAROA. Antolatzailea: Irungo Gurutze Gorria. Noiz: Urtarrilak 27- otsailak 11 40 ordu. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:20era. Izen emateko epea: 2014-01-24. Izen-ematea: irun.soci@les@cruzroja.es edo Eus-

kal Herria hiribidea, 14. - ENPLEGUA BILATZEKO TAILERRAK. Aurkitu zure lana, sortu zure lanpostua, bideratu zure



etorkizuna!!! Doako tailerrak. Toki kopuru mugatua. Izena emateko: elospazio@bidaso-activa.com edo telefonoz: 943.633.160



Lehiaketak

- ASMAKUNTZA ETA DISEINU LEHIAKETA. Deialdigilea: TECNUM, Nafarroako Unibertsitateko Ingenieritza Eskola. Edukia: Ideiek kirol artikuluen edo artikuluen teknologikoen hobekuntzara bideratuak egon behar dute. Baldintzak: - Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak. - Parte-hartzea banaka edo gehienez hiruna laguneko taldeka egin daiteke. Epea: Urtarrilak 31 ingenio@tecnum.es



Lana

- OPOSAKETAK ERIZAINENTZAT. Deialdigilea: Aragoiko Gobernua. Plaza kopurua: 203 Epea: Otsailak 6.



- ANDALUZIARAKO BATZARRAK IRAKASLE PLAZAK ESTALTZEKO 6 LAN POLTSA IREKI DITU. Lanbide Heziketa, Hizkuntza Eskolak eta Bigarren Hezikuntza Epea: Urtarrilak 20.

- ORDAINDUTAKO PRAKTIKAK. Non: Europako Hizkuntza Modernoen Zentroan (Austrian).



Baldintzak: Graduondoko ikasketak, bereziki alor hauetakoak: liburutegiak eta informazio zientziak. Hizkuntzak: Ingelesa, frantsesa eta alemana. Zenbatekoa: 720 € hilero. Epea: Otsailak 28. gazteukera.euskadi.net



Gazte Informazioko Whatsapp

IGaztek gogo betez hasi du 2014a

ZUENGATIK eta ZUENTZAKO!

Erantzuteko prest! whatsapp: 607 771 173



EGA azterketa eta euskara ikastaroak

EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA

2014ko 1. deialdia Matrikulatzeko epea: urtarrilaren 7tik 20ra, biak barne Nola: Matrikula-fitxa on line beteta Harremanak norekin: Euskara Zerbitzua (Lakua): huisega@ej-gv.es

EUSKARA IKASTAROA



IRUNGO UDAL EUSKALTEGIAN Noiz: Urtarriletik ekainera. Epea: Urtarrilaren 20tik 24ra. Informazioa: 943 50 52 73



Irungo agenda



Gazte Informazio Bulegoaren web orrian Irunen burutuko diren jardueren inguruko agenda kontsulta dezakezu. - Irunen edo Irundera antolatutakoak: berriak, deialdiak... - Azken egunak honetarako - Kultur agenda

- Irun Hondarribia Turismoa - Ficoba - Instalazioak eta disfrutatze jarduerak - Gazte Artea - Gazte sorkuntza eta adierazpena - Sorkuntza lantegiak: Irun Factory, Bitamine Faktoria.

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Irunero non eskura dezaket?

San Juan

Gaztelumendi
Manolo
Sargia
Udal Liburutegia
Gazte Informazio Bulegoa
Corner
Orrua
Fotokop
AEK

Nafarroa hiribidea

Kutxa
Ogi Berri
Hawai
Erauskin

Santiago

Txingudiko

Zerbitzuak

Toma Pan y Moja
Swing
El Bule
Argitze zentroa

Urdanibia plaza

Migel taberna
Ospitale zaharra
Udal Euskaltegia
Ama Xantalen egoitza
Bainu (Urantzu kalea)

Dunboa/Palmera - Montero/Arbes

Osasun Zentroa
Ogi Berru
Tahona
Zura

Anetxe

La Agrícola
Dunboa LHI
Biribi
Toki Alai HH

Behobia/Azken Portu

Toki Alai BHI
(Gazteluzahar)

Kolon ibilbidea eta inguruak

BBVA
Kutxa
Anbulatorioa (Gipuzkoa hiribidea)
Virginia kafetegia
Edurne kafetegia
Erauskin

(Luis Mariano)

Sirimiri
Turismo Bulegoa
SAC-HAZ
Merkairun
Luis Mariano pentsiodunen etxea
Euskadiko Kutxa
Santander bankua

San Migel

Tabisa
Caser egoitza
Uranzu azoka
Gizarte
Segurantzaren Institutua
LANBIDE

BBVA

Santander bankua
Sabadell Bankua
Euskadiko Kutxa
Kutxa
Rural Kutxa
Loteria administrazioa

Antzaran/ Anaka

Kutxa
Mariño
Washington taberna
Anaka Berri erretegia

Puiana

Tahona
Bidasoako Ospitalea
Jostamendi

Txingudi Ikastola

Larreaurdi

Larrarte harategia
Toma Pan y Moja
Pedro arraindegia
Eguzkitza ikastetxea

Elizatxo/Katea /Belaskoenea

Martindozenea gaztelekua
Elatzeta ikastetxea
Ongi Etorri taberna
Super Larrea
Belaskoenea ikastetxea
Café Irun

**Urtarrilak 17****Poesia****Udal liburutegian**

17:30ean, poesia taldea. Ardura-duna: Jesus Rodriguez. (*G).

Urtarrilaren 7tik 19ra**Erakusketa****Laboral Kutxan**

Frederic Gonzalezen margolanak.

Urtarrilaren 20an**Liburu foruma****Udal liburutegian**

19:00etan, Maria Benitezen *El conservador* (*G).

Urtarrilaren 21ean**Idazkuntza tailerra****Udal liburutegian**

17:30ean, Edward Rossetek zuzenduta. Gaia: Erabil dezagun deskribapenen koadernoak (*G).

Urtarrilaren 22an**Hitzaldia****Argoak Elkarteak**

17:00etan, *Etterik gabeko pertsonak* gaiari buruzko hitzaldia. (*G). Hizlaria: Jose Antonio Lizarralde, Gipuzkoako Caritaseko etxerik gabeko pertsonen programako arduraduna.

**Urtarrilaren 22an****Ipuin kontalaria****Udal liburutegian**

17:30ean, *Kontu kontari* ipuinak (Euskaraz).

Urtarrilaren 24tik otsailaren 23ra**Erakusketa****Amaia KZn**

XVII. Calahorra Hiria Margo Le-

G*: Gaztelaniaz



hiaketa. Pintura Lehiaketa Nazionalaren azken edizioako 18 lan hautatu aurkeztu. Koadroen gaia gastronomiaren munduaren eta gastronomiarekin zerikusia duen gauza ororen inguruan datza.

Urtarrilaren 25ean**Poesia****Abadia gazteluan**

18:00etan. Gaia: Anton Abadiaren bizitza, obra eta poesia. Hizlariak: Patri Urkizu, Fernando Morillo eta Ekhiñe Egiguren.

Urtarrilaren 26an**Kontzertua****Amaia KZn**

12:00etan, Irun Hiri Musika Bandaren kontzertua. Sarrera doan.

Urtarrilaren 27an**Mintegia****Udal liburutegian**

19:30ean, idazkuntza elektronikari buruzko mintegia.

Urtarrilaren 28an**Irakurketa kluba****Udal liburutegian**

19:00etan hasiko da, Mertxe Tranchek zuzenduta (*G).

Urtarrilaren 29an**Hitzaldia****Argoak Elkarteak**

17:00etan, *Osasuna eta gaixotasuna bizitzaren historian* (*G). Hizlaria: Koldo Ortega (Esperientziaren Eskolako irakaslea)

Karakorum bizikletaz

Zer: Ikus-entzunezkoa: Karakorum bizikletaz.

Noiz: Urtarrilaren 23an

Non: Amaia KZn.

Ordua: 19:30ean

Ramon Arrizabalagak aurkeztuta.

Iraupena: 46 minutu

Hizkuntza: Euskara

Bost lagun 2012ko udan bi hilabetez Pakistan ipar ekialdean bizikletaz.



IRUN ZUZENEAN kontzertuak

Urtarrilak 17, ostirala, 23:00etan: GATOS PARDOS (Royal Club)

FOUS (Royal Club)

Urtarrilak 19, igandea, 20:00etan: LUKE ARMSTRONG (Bhuda Bar).

Urtarrilak 25, larunbata, 20:00etan: BEÑAT IGERABIDE (Scrum Berri).

Urtarrilak 31, ostirala, 23:00etan: LES



Kabigorriko kontzertuak

Urtarrilak 18: BIDE ERTZEAN

Urtarrilak 31: Ian Swedlund

Otsailak 8: La bona de dea

Otsailak 28: MURSEGO

Denak 19:30ean izango dira, eta sarrera, borontatea.



Antzerkia



Zer: 4-8 urte bitarteko haurrentzako antzerkia: Erreka Mari

Noiz: Urtarrilaren 18an

Non: Amaia KZn

Ordua: 17:00etan

Sarrerak: 4,10 euro

- Web bitartez
- Leihatilean ikuskizunaren egun berean
- Irungo Turismo bulegoa (Luis Mariano).
Hizkuntza: Euskara
Taldea: Txotxongilo
Ba ote dago Euskal Herrian oraindik laminarik? Hainbeste zikinkeria, inbidia eta marmar, eta ezkutatu joan ziren. Baina ez larritu. Bat gelditzen zaigu eta haren istorioa kontatuko dizuegu: Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina.

Antzelan honetan Lara Mitxelenak eta Ixiar Jauregik txalaparta zuzenean joko dute.

Hotel Talaia
J A T E T X E A

ARIZ ONDO 69 20305 VENTAS IRUN

Tel. 943 635 518 jatetxea

Tel. 943 629 433 hotela ***

info@hotelatalaia.com

www.hotelatalaia.com

TXOTX BERRIA IREKIERA FESTA

Urtarrilak 19, igandea

14:00etan



Argazkiak: GUILLO



Zatoz bertako sagardo berria dastatzera!

- Patxi Urtizberea txalapartariari omenaldia
- Sagardo dastaketa
- Animazioa
- Bazkaria

DENBORALDI HONETAKO BERRIKUNTZA:
Pittar tradizionala

Bidasoako eztria
eta sagardoa salgai

Sagardotegi menua: 26 €

Meaka auzoa, 102. IRUN. www.olasagardotegia.net. 943 623130

